



## GIZATEA – Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte Zeregina, ikuspegia eta balioak



Gizatearen **zeregina** da laguntza ematea gizarte bidezkoago baten aldeko ekonomia solidarioa garatzeko, laneratzeko enpresak sustatuz, haiek tresna egokiak baitira gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako lan-merkatu arruntean laneratzeko aukerak sortzeko.

Gizateak taldeka eta eraginkortasunez ekin nahi die laneratzeko enpresek aurrean dituzten erronkei, eta, ildo horretan, enpresen arteko elkarlana sustatu, sektorea hobetzeko eta sendotzeko laguntza eman, eta haren onespena eta harremana erraztu nahi du instituzio publikoen, gizarteko eragileen eta, oro har, gizarte osoaren aurrean.

Gure **ikuspegiaren arabera**, Gizatea Laneratzeko Enpresen Elkarte ereduakoa da Euskadin, bai eta beste lurralde batzuekiko erlazioan ere.

Elkarteak maiz aritzen da hizketan erakunde publikoekin, eragile eta elkarte sozialekin, eta gaitasuna du laneratzeko enpresei lotutako politiketan eragiteko.

Erakundearen egitura eraginkorra da, elkartuta dauden enpresen arteko parte-hartzea eta elkarlana dira garapen asoziatiboaren oinarria, eta zerbitzuak eta tresnak ditu, haien beharretara ondo egokituak. Gainera, gora egin du kontratatutako pertsonen kopuruak, eta, bereziki, laneratzeko pertsonentzako postuena.

Elkarteak aktiboki parte hartzen eta jarduten du ekonomia sozial eta solidarioa, hirugarren sektoreko eta gizarteratze-arloko beste sare batzuekin batera, gizartea eraldatzen laguntzeko.

Gizateak bere **Etikako Kodeko balioak** hartzen ditu beretzat:

- ✓ **Kalitatea:** kalitate etikoa lortu nahi dugu, zerbitzu bikaina eskainiz; pertsonen eskubideak eraginkortasunez bermatzen ditu, jarduteko eremu guztien ardatz gisa hartuta.
- ✓ **Parte-hartzea:** kontsultatzeko eta erabakitze bideak erabiliz, eta erabakiak hartzeko prozesuetan inplikazioa eta horizontaltasuna bilatuz.
- ✓ **Gardentasuna:** ekonomia solidarioarekin dugun konpromisoa agerian jartzeko eta aldizka kontu emateko.
- ✓ **Irabazi-asmorik gabea:** ekimen solidario gisa eratu ginen, gizakien eta gizartearen sustapena helburu nagusitzat hartuta.

- ✓ **Baterako erantzukizuna:** behar den oreka lortu nahi dugu alde guztien eskubideen eta betebeharren artean, eta, ildo horretan, erantzukizunak banatzen dizkiegu behar den mailetan tartean sartuta dauden talde guztiei.
- ✓ **Aukera-berdintasuna:** neurri bereziak ezarri behar dira gizartean eta lanean, desabantailan, bazterketan edo egoera ahul edota hauskorrean dauden pertsonen baldintza berberekin parte hartu ahal izateko aukera izan dezaten.
- ✓ **Genero-berdintasuna:** gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak sistematikoki hartu behar dira aintzat, eta helburu eta jarduera bereziak prestatu behar dira desparekotasunak desagerrarazteko.
- ✓ **Lankidetza:** elkarlanean oinarritutako estiloa dugu lanean, eta lankidetza eta lehiakortasun eza bultzatzen ditugu, elkarrekiko harremanetan, funtsezko gako gisa.
- ✓ **Pertsonalizazioa:** badakigu zein diren gure lanaren xede diren pertsonen beharrian zehatzak eta bereziak, eta erantzuna ematen diogu haietako bakoitzari, laguntza-prozesu baten bidez.
- ✓ **Iraunkortasuna:** baldintzak sortzen ditugu ekimenen bideragarritasunari eta jarraipenari bide emateko, eta, aldi berean, ingurumenarekiko errespetua duten ekintzak, produktuak eta metodoak bultzatzen ditugu.
- ✓ **Ingurunearekiko konpromisoa:** gizartean dauden erabaki-gune guztietan egoten saiatzen gara, bai eta ekonomia- eta enpresa-bilbeetan ere, bereziki ekonomia egiteko bestelako moldeak sendotzeko proiektuetan parte hartu nahian.



**Emaila:** [gizatea@gizatea.net](mailto:gizatea@gizatea.net)

**Telefonoa:** 944 010 959

**Helbidea:** Venezuela plaza 1-2. ezk.-ezk. 48001 BILBAO